





SALAKETA ETA SEGURTASUN BABESA

Larrialdi-egoeretan, **112 SOS NAFARROA** telefonoaren bidez jar daiteke harremanetan polizia-kidego guztiekin. Halaber, emaztekiak komisaria edo polizia-etxe gertukoenera joaten ahal dira eta/edo bertan zein eraso gertatu den lekuan salaketa paratzen ahal dute.

FORUZAINGOA (Elizondoko Komisaldegia)

 Menditurri. Elizondo 13, beheitiko solairua
31700 Elizondo
 948 581 864 / 112
 pfelizondo@navarra.es
 24 ordu

LARRIALDIAK

S.O.S NAFARROA 112 LARRIALDIETARAKO ZENTROA

Laguntza juridikoa, larrialdiko arreta psikologikoa eta beharrezko baliabideen aktibazioa eta koordinazioa (osasuna, poliziala)

INFORMAZIO OROKORRA

016 telefonoa emaztekien kontrako indarkeriaren inguruan informazio eta aholkularitza juridikoa emateko zerbitzua da. Guztiz doakoa da, konfidentziala eta deia ez da fakturan azaltzen. **52 hizkuntzatan** eskaintzen da arreta. **WhatsApp** eta **helbide elektronikoa** bidezko arreta ere eskaintzen da.

 **016**

WhatsApp  **600 000 016**

 **016-online@igualdad.gob.es**

 **24 ordu**



EMAZTEKIEK KONTRAKO INDARKERIA - BAZTANGO BALIABIDEAK -

BERDINTASUNA

Baztango emaztekien eta gizonezkoen arteko berdintasuna bulkatzea du helburu. **Protokoloaren koordinazio eta informazio** orokorrerako edo indarkeria matxista egoera bat salatzeko:

Baztango Berdintasun Zerbitzua

- 📍 Foruen plaza, 1.go solairua
31700 Elizondo.
- ☎ 948 580 006 - 613 003 634
- ✉ berdintasuna@baztan.eus

GIZARTE ARRETA

Beharrezkoak diren baliabideen kudeaketa (diru laguntzak, elikagai bankua,...) eta Emaztekien Kontrako Indarkeria kasuetan berariazko baliabideetara deribazioa eta koordinazioa egiten dute.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

- 📍 Baztango udala, beheitiko-solairua
31700 Elizondo.
- ☎ 948 58 00 06 / 689 03 50 78
- ☎ 948 45 22 69
- ✉ gizartezerbitzua@baztan.eus

OSASUN ARRETA

Lehen mailako arretako osasun-zentroek, osasun-kontsultategiek, sexu- eta ugalketa- osasunaren arreta zentroek, eta bertzelako osasun zerbitzu publikoek **osasun-arloko jarduketa-protokoloa dute emaztekien kontrako indarkeria-kasuetarako.**

Elizondoko Osasun Zentroa

- 📍 Francisco Joaquín Iriarte, 1
31700 Elizondo.
- ☎ 948 58 18 33
- 🕒 08:00-15:20

Sexu eta ugalketa osasunaren arretarako azpiunitatea (CASSYR)

- 📍 Francisco Joaquín Iriarte, 44
31700 Elizondo.
- ☎ 948 581 835
- ✉ camelima@navarra.es
- 🕒 astelehenetik ortziratera 8:30-14:30

ARRETA ESPEZIALIZATUA

Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala Emateko Taldea (BAIT) doako baliabidea da. Indarkeria-egoeran dauden emaztekiei **informazioa, arreta psikoterapeutikoa eta juridikoa** ematen diete, baita haien seme-alabei eta beren zaintzapean dauden bertze pertsona batzuei ere. Udaleko gizarte-zerbitzuek, harrera-baliabideek edo bertze profesional batzuek bideratu edo emaztekiek zuzenean jotzen ahal dute.

Genero indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea (BAIT) Iruñerriko ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko ingurua:

- 📍 Bidaburua Kalea 5,
31610 Atarrabia.
- ☎ 621 14 57 51
- ✉ eaivcomarcaynorte@fundaciongizain.es
- 🕒 astelehenetik ortzegunera 8:00-19:00, ortziraleak 8:00-17:00

ZERBITZU JURIDIKOAK

Zerbitzu honek, premiazko arreta psikologikoaz gain, hainbat funtzio ditu, bertzeak bertze, emaztekiei **laguntza juridiko, psikologiko iraunkor eta asistentziala** ematea eta babes-aginduen Nafarroako koordinazio-puntua izatea.

Delituaren biktimen arretarako bulegoa (DBAB)

- Zerbitzu nagusiak: guardiako psikologia-zerbitzua, terapia programak erasotzaileendako, sexu-indarkeria kasuen atentzio integrala.
- 📍 San Roke kalea 4, beheitiko solairua
Justizia-jauregia 31011 Iruña.
- ☎ 848 423 376 / 848 427 671 /
848 421 387

Emaztekiei Laguntza juridikoa emateko Zerbitzua (ELZ-SAM)

Zerbitzuak beharrezko informazio, orientazio eta aholkularitza eskaintzen du, emaztekien kontrako indarkeriaren arloan. BAITen bidez ematen du laguntza juridikoa, beraz BAITekin jarri behar da harremanetan. Salaketa paratu aitzinetik aholkularitza ematen dute.